



USURBIL – ELKARGUNEA

5. SAIO IREKIA

Eguna: 2024/06/18

Ordua: 10:00-13:30

Tokia: Udarregi Ikastolako Haur Hezkuntzako geletan

Bildutakoak:

- Guztira, 17 lagun; %70,6 emakumeak eta gainerako %29,4 gizonak.
- Usurbilgo Udaleko 2 arduradun politiko.
- Elhuyarreko partaidetza eta eraldaketa soziala arloko 2 aholkulari.

Landutakoak:

1. Sarrera eta girotzea

Hurbildutakoei ongi etorria eman eta *Elkargunea proiektua modu partekatuan definitzeko partaidetza-prozesuko* bosgarren eta azken saio irekia kokatu dugu, saioaren nondik norakoak aurkeztuz:

- Sarrera eman eta girotzea.
- Orain arte egindako ibilbidea gogoratzea eta partaidetza-prozesuan landutakoak konpartitzea.
- Aurrera begirako lan-dinamika adostea.
- Partaidetza-prozesuaren balorazioa egitea.
- Itxiera ematea.

Partaide berri bat bertaratu denez, baimen-orria pasa diogu bete dezan eta gainontzeko taldekideei erregistro orria bete dezaten eskatu diegu.

Girotzea

Kokapenaren ondoren, dinamika bat egin dugu: ezagutza bingoa. Dinamika honen helburuak izan dira, besteak beste: taldekideak haien artean hobeto ezagutzea, talde kohesioa indartzea eta saiorako buru zein gorputzak aktibatzea. Horretarako, partaide bakoitzari 10 baieztapen jasotzen dituen orri bat eman diogu eta bertan jasotzen diren baieztapenak betetzen dituen taldeko pertsona bana topatzea izan da erronka.


2. Elkargunea proiektua

Orain arteko ibilbidea gogoratu

Elkargunea proiektuaren sorreratik gaur arte egindako bidea gogoratu dugu lurrean jarritako papelografo batean prozesuaren denbora-lerroa irudikatuz. Bertan jaso ditugu 2020az geroztik proiektu honekin lotuta izan duten mugarriak.



Ondorengoak dira denbora-lerroan jasotako mugarriak:



- 2020ko azaroa: Gazte eguna (orain eta ozen).
- 2021eko otsaila: Badator prozesua (zer forma emango diogu Usurbilgo gaztetxeari?).
- 2021eko uztaila-abuztua: Gaztetxea bidean prozesua.
- 2021 eta 2022an zehar: Usurbilgo Kulturgunearen sorrera.
- 2022an zehar: hiru eragileen arteko elkarlanaren hasiera (Aztarrika, Ziortza eta Kulturgunea).
- 2023ko maiatza: Usurbilgo Elkargunea proiektuaren aurkezpen ekitaldia.
- 2023ko udazkena: Usurbiltzen Agintaldi planean sartzen da (Usurbilgo Udala).
- 2024ko urtarrila: Partaidetza prozesuaren aurkezpena.
- 2024ko otsaila-maiatza: partaidetza prozesuaren 4 saio eta Oñatira bisita.
- 2024ko martxoa-maiatza: Ziortzako eta Gaztelekuetako nerabeekin lanketa (Elkargunean zer?) eta izen-proposamenen jasoketa.
- 2024ko ekaina: GAUR.

Prozesuan zehar adostutakoak partekatu

Bidea gogoratu ostean, partaidetza-prozesuaren baitan adostutakoak, proposatutakoak eta aurrera begira argitzeko geratu diren gaiak konpartitu ditugu. Azalpenak Talde Eragileko bost kideren ahotik jaso ditugu.



Azaldutakoak, esan bezala, ondorio orokorrak izan dira, 6 ataletan jasotakoak:

1. Xedea, begirada.
2. Helburuak.
3. Balioak.
4. Erabilerak, jarduerak eta espazioaren antolaketa.
5. Barne-antolaketa.
6. Kudeaketa eredua.

Oinarri sendoa jarri du prozesuak, etorkizuneko Elkarguneak izan beharko lukeenaren abiapuntua zehaztea lortu baita. Hemendik aurrerako erabakiek, beraz, prozesuan adostutakoekiko koherente beharko dute izan. Aurrera begira zehazteko geratu dira zehetasun handiagoz lantzea behar duten gaiak; edota batzar hauetatik kanpo hartu beharreko erabakiak:

- Xedea eta helburuak berrikusi.
- Balioak doitu.
- Talde Motorrak berme guztiekin jarduteko irizpideak adostu.
- Harreman sarea zabaltu, honetarako estrategia bat diseinatu.
- Kudeaketa partekatuko eredu propioa zehaztu.
 - o Udalarekin harremana eta honen parte hartzea argitu.

- Barne-araudia landu.
- Sormen-gunearen erabilera definitu, kulturgileen ezagutza eta beharretatik abiatuta.
- Kudeaketa ekonomikoa finkatu.
- Kontsumo ereduaz hausnartu.
- Beste hainbat prozedura landu
 - o Elkarguneko kide berriei harrera nola egin irudikatu.
 - o Genero ikuspegia Elkarguneko jardueran txertatzeko check-lista prestatu.
 - o Gune segurua izateko protokoloak landu.
- (...).

Behin behineko dokumentua bada ere, ondorengo estekan dago ikusgai:

https://drive.google.com/file/d/1oqTkfxT-DjebM-0PhHqPTJGTCB7r2Q6S/view?usp=drive_link

Azalpenekin amaitu ostean, partaideei galdetu diegu ea ekarpenik egin nahi ote zuten, desadostasunik ba ote zegoen edo zerbait faltan bota ote duten. Ez da ekarpenik jaso eta, beraz, partekatutako ondorioak ontzat eman dira.

Aurrera begirako lan-dinamika adostu

Ondoren, dagoeneko 2024ko udazkenerako aurreikusten diren hurrengo pausuak partekatu ditugu:

- Uztailean eta irailean: Talde Eragilearen bilera bana.
- Urrian: prozesuak eman duenaren eta proiektu arkitektonikoaren aurkezpen publikoa.

Pausu horiez gain, lantzeke geratu diren gaietan xehetasunetara jaitsi eta zenbait kontu ebazteko beharra ikusten du prozesuaren gidaritzarako eratu den Talde Eragileak. Era berean, Elkargunearan fisikoki eraiki bitarte eragileen arteko elkarlana mantendu eta herrian proiektua sozializatzeko beharra ere ikusten da.

Jarraian, beraz, gai hauen ingurukoez galdetu zaie partaideei. Zehazki, datorren ikasturtean zehar zein egitura eta dinamiken baitan lan egitea aurreikusten duten eta bide horretan aholkularitza baten bidelaguntza behar ote den. Beraz, ondorengo lau egitura/dinamikaren eta galderen inguruan gogoetatzeko eskatu diegu talde txikitan.

- Talde Eragilean nork hartu behar du parte? Zein izan behar da bere egitekoa? Zein gai landu behar ditu? Eta zein maiztasunekin bildu behar da?
- Elkarguneko batzarrean aldiz nork hartuko du parte? Zertarako izan behar da batzarra? Zein gai landu behar dira? Eta zein maiztasunarekin deitu behar da?
- Elkarlan-dinamikan nork hartu behar du parte? Zein helburu izan behar ditu dinamika honek?

- Eta guzti honetan zein izan behar du Usurbilgo Udalaren egitekoa? Non parte hartu behar du eta nola?

Jarraian talde txikietako ordezkariak talde handian partekatutakoa:

1. Taldea

- Elkargunea eraiki aurretik finantzazioa lortzeko ekintzak aurrera eramatea.
- Batzarra 3-4 hilabete behin biltzea (talde eragileak rol aktiboa saioen prestaketan eta ondorenean, hitz egindakoak jasotzeko). Erabakitzeke dauden gaiak lantzea izango da helburua, batetik; eta, jarduerak eta ekintzak antolatzea, bestetik. Hiru helbururekin:
 - o Talde harremana sendotzeko / motibatuzeko
 - o Herrira begira elkargunearen presentzia mantentzeko eta parte-hartzaile / eragile berriak lortzeko
 - o Finantzazioa lortzeko (adibidez kontzertuak).
- Elkargunean gerturatu doan bitartean maizago bildu. Elhuyarren laguntza behar izanez gero momentu honetan

2. Taldea

- Talde eragileari garrantzia. Eragile bakoitzeko bi ordezkariak parte hartu behar lukete, orain arte bezala. Aldaketaren baterako beharra balego, bat finko mantentzea eta beste bat aldatzea. Norbanakoei ere espazioan parte hartzeko aukera eskaini. Baina, talde txikia mantenduz. Hilabete behin edo beharren arabera bilduko da eta bertan hartutako erabakiak eragile bakoitzera eramango dira, baina ez batzarrera.
- Batzar irekiak deitzea talde eragileak proposamen landu bat duenean hori partekatzeko eta erabaki zehatzak hartzeko. Dinamizazioari dagokionean, Elhuyarren dinamizazioa oso ondo dago, baina trebatzen joateko beharra dago eta batzarrak haien kabuz dinamizatzeko saiakera egin nahi da. Talde eragileak ardura hori. Gai zehatzik ez badago ere, harremana eta elkarlana ez galtzeko noizean behin biltzea.
- Talde eragileari eskatzen diote egindako jardunaren balorazioa partekatzeko.
- Eragileen arteko elkarlanari ekin: aisialdiaren esparruan, egutegi amankomuna berrikusiz, herriko eragileen gida bat sortzea. Helburua da Elkargunea sortu bitarte hau bizirik mantentzea, akaso gauza berriak sortu ordez egiten diren horiei buelta bat eman eta elkarrekin eraikitzen hasita. Lanketak hasi, praktika lurreratu.

3. Taldea

- Elkarguneak iradokitzen duen elkarlana gauzatzen hasi behar, eraikina egon gabe ere eta saiatu ekimenak antolatzen, eragileen arteko nahasketa izango dutenak. Ekimenek ez dute zertan izan beti lau eragileak presente daudenak. Ekimenen batean sinergiak sortzeko aukerak daudenean Elkargunearen txapel horren pean egiten ahalegindu; bide batez proiektua gizarteratu eta herrian proiektzioa izan dezan.

- Ekintza horiek eragileengandik talde motorrera etorri beharko lirateke eta bertan baloratu aurrera egin edo ez. Gero, ekitaldien koordinazioa eta egikaritzea, antolakuntza lanak, talde motorretik kanpora kokatu lirateke, eragileen esku utziz.
- Ikasturtean zehar 4 bat ekitaldi bateratu egin daitezke. Baina eragileen jarduna baldintzatu gabe.
- Haria ez galtzeko eragile bakoitzak lan bat egin beharko du: irailean plangintza egiten denean Elkargunea plangintzan kokatu, egutegian sartu.
- Eragileetan talde motorrean landutakoa partekatzea ezinbestekoa izango da.
- Eragile bakoitzak egingo balu dinamika bat barrura begira eta dagoeneko egiten duen beste bat kanpora begira, nahikoa litzateke. Egiten den hori Elkargunearen txapel pean egitea eta beste eragileen lanarekin uztartzea da gakoa.

Laburbilduz:

- Talde Eragilea:
 - o Proiektuaren gidaritza eta lantzeke geratu diren gaiak aztertu eta erabakiak hartzeko ardura izango duen gunea izango da.
 - o Eragiletako ordezkariak parte hartuko dute, baina norbanakoei ere irekiko zaie aukera (betiere talde txiki eta jasangarria mantenduz).
- Batzarra:
 - o Talde eragileak erabakiko du noiz dagoen batzarra deitzeko beharra, baina aurrean baino maiztasun txikiagoarekin deituko da.
 - o Dinamizazioan rol aktiboena Talde Eragileko kideek hartuko dute.
- Elkarlana:
 - o Eragile bakoitzak ikasturteko plangintzan Elkargunearen txapel pean burutuko dituen ekintzak planifikatuko ditu. Egutegi partekatu bat osatuko da horrela.
 - o Sinergiak bilatu eta elkarrekin lanketak egiten hasiko dira (ahal den neurrian, egun egiten diren ekintzetatik abiatuta, berriak sortu beharrean).
 - o Lanketa honek Elkargunea gizarteratu eta herrian proiektatzeko balioko du.
- Finantzazioa:
 - o Autofinantzatzeko bideak aztertzen hasiko dira, esaterako kontzertuak edo bestelakoak antolatuz, beti Elkargunearen txapel pean.

Taldekiek egindako eskaerari eutsiz, **Talde Eragileko kideek balorazioa** partekatu dute, ondorengoak adieraziz:

- *Ni Gaztelekuko langile bat naiz, ez naiz Usurbildarra. Baina ni oso gustura nago, ondo sentitzen naiz eta lan polita egiten ari garela iruditzen zait. Gainera, Usurbilen lan handia egiten duzuela iruditzen zait, Andoainen ez dut hau ikusten, eta orduan segi nahi dut parte hartzen.*

- *Ni ere gustura egon naiz taldean. Giroa ona da eta lanerako gogoia badago. Nik aitortuko dut exigentea ere izan dela, erritmo handiagoan lan egin behar izan dugu. Egia da, baita ere, lana neurtua izan dela eta Elhuyarrek bilerak prestatu eta gidatzeak karga arindu digula, batez ere aurreko fasearekin alderatuta, lan hori guk hartzen genuelako. Bai sentitu izan dut ikasturte honetan Elkarguneko talde motorrean indar handiagoa jarri izanagatik Kulturguneko talde motorrari gutxiago eskaini diodala. Baina egia da giroa oso ona dela eta gero larunbatetako saioetan zuen feedback positiboa jaso izan dut eta txute bat izan da jarraitzeko eta proiektuan inplikatzeko. Beraz, zentzu horretan, eskerrik asko.*
- *Nik oso sinple. Bere hitzak goitik bera errepikatzen ditut.*
- *Ni ikasturte honetan hasi naiz talde motorrean, iaz beste kontu batzuetan nenbilelako. Eta egia esan oso ondo. Egia da Kulturguneari guk proiektu hau hasieratik oso presente izan dugula, Kulturgunea sortu aurretik ere honen inguruan hitz egiten genuen. Amets bat izan da. Eta amets hori pixkanaka egikaritzen ikustea kriston txutea da. Ilusio handia daukat proiektu honetan eta espero dut bost urte behar ez izatea ikusteko.*
- *Ni ere oso gustura egon naiz. Ez nuen inoiz horrelako proiektu edo prozesu batean parte hartu eta egia da momentu askotan galduta sentitu naizela. Baina, oso gustura nago eta esan duten bezala, biltzen garen larunbatetan egoten den giroak indarra ematen dit. Edozein dinamika sinplerekin jendea oso motibatuta egoten da. Horrek ilusio handia egiten dit.*

Azkenik, ahoz gora talde handian partekatu ez den arren, **Talde Eragileko kideek aurrera begirako langaien inguruan egindako gogoeta** jaso dugu akta honetan, jarraian; saioan talde txikian egindako ariketaren parte den heinean:

- **Lanketarako lehentasunezkoak:**
 - o Kudeaketa partekatuko eredu propioa zehaztea
 - o Kudeaketa ekonomikoa finkatzea
 - o Sormen-gunearen erabilera definitzea, kulturgileen ezagutza eta beharretatik abiatuta (Kulturguneari egin behar da lanketa hau)
- **Bigarren maila batean:**
 - o Barne-araudiaren lanketa
- **Hirugarren maila batean:**
 - o Xedeak, helburuak eta balioak berrikustea
 - o Harreman sarea zabaltzea eta horretarako estrategia bat diseinatzea
 - o Beste hainbat prozedura lantzea
 - o Talde Eragileak berme guztiekin jarduteko irizpideak adostea (batzarrean onartu beharrekoa)

3. Izena

Lanketa honen ondoren, eta atsedenaldiaren aurretik, prozesuaren gidaritza duen Talde Eragileko kideek azken Talde Eragileko bileran izenaren inguruan landutakoak aurkeztu dizkiote taldeari. 42 izen desberdin jaso dira prozesuan zehar eta horiek kontuan izanda landu dute proposamena:

ARROBITXULO

Izena aukeratzearen arrazoiak ondorengoak izan dira:

- Toponimiarekin harremana: *Arrobitxulo* kalea dago zelaigunearen alboan. Garai batean harrobia zegoen bertan; baita zuloa ere, noski. Garai bateko ikasleak eskolarako arbelaren bila joaten ziren harrobi hartara, hortik dator izena.
- Sinbolismo handia ere badu:
 - o Batetik, harrobiaren esanahia: gazteen harrobi, sorkuntzarako harrobi, euskal kulturaren transmisiorako harrobi. harrobi kulturala, belaunaldi arteko harrobia...
 - o Bestetik, zuloaren esanahia: aretoa zuloa izango da, gure zulo beltza.
- Barruko bi gune nagusien izenak ere horiek izan daitezke: Gaztelekuaren eta nerabeen aisialdirako gunearen izena harrobia, batetik; eta, aretoaren izena zuloa, bestetik.
- Deitzeko ere egokia: *Arrobira* goaz, *Arrobin* kontzertuak daude...


Izen proposamenarekin adostasun osoa egon da, baina izen propioak H-a behar duen edo ez erabakitzeke geratu da, eztabaida sortu baitu gai honek.



4. Partaidetza prozesuaren balorazioa

Atsedendiairen ondoren, partaide bakoitzari Elkargunea proiektuaren sorreratik gaur arte bitarteko une desberdinetan zein sentimendu izan duen adierazteko eskatu diogu. Horretarako, Hiruki Larroxako kideek itzulitako emozioen taula eraman dugu saiora, emozio ezberdinekin inspiratu ahal izateko.

Aukeratutako sentimendu bakoitza post-it banatan idazteko eskatu diegu partaideei eta ondoren, talde handian elkartuta, denbora-lerroan itsasteko. Horrela, denon artean, emozioetan oinarritutako kontakizun partekatua sortu dugu, denbora-lerroan islatu duguna.



Ondorengo emozioak eta ideiak partekatu dira:

2020-2021 etapa:

Zoriontasuna, baikortasuna, boteretsu, harro, abandonatuta, jeloskor, dudati, nahasia, hotz, kritiko, eszeptiko, euforiko, perezoso, haserre, atsekabetuta...

- *Hotz, kritiko eta eszeptiko: prozesu honetan ezkor abiatu nintzen, ikusi nuenean asmoa zein zen prisma horretatik ikusten nuen.*
- *Harro eta boteretsu: ni gaztetxo nintzen, baina espazio baten bila hasi ginen eta hasi izanak harro sentiarazi ninduen; eta boteretsu, egon zelako momentu bat espazio bat okupatzera ere bagindoazena eta hor oso boteretsu sentitu nintzen.*
- *Hotz eta abandonatuta: pixka bat urruti sentitzen nintzen proiektuarekiko, ez ninduen asko konbentzitzen edo ez dakit, distantzia batera kokatu nintzen.*
- *Nahasita: garai hartan egokitu zitzaidan lubakiaren beste aldean egotea. Gogoia hor zegoen, eraikinak ere hor zeuden, okupatzeko, eta niri tokatu zitzaidan gaiak beste norabide bat harrezan saiakera egitea; eztabaidak izatea bileretan eta bileretatik kanpo; eta aldi berean ni*



espazio horren alde nengoen. Kulturgunearen sorrera haietan 60 bat kide batu ginen eta hor ere askok ikusten zuten horrelako espazio baten beharra... horregatik, nahasita.

- **Euforiko:** Kulturguneko sorrera haietan genbiltzalako eta niretzako momentu polita izan zelako oso.

2022-2023ko etapa (aurkezpena bitarte):

Beldurtuta, intimo, harro, ilusionatuta, urrun, harro, curioso, interesatuta, txundituta, hunkituta, aho zabalik...

- **Beldurtuta:** Kulturgunetik nentorren honen nahian eta bueltaka; baina, era berean, esaten nuen: zenbat elkartu gara? Iortuko al dugu guzti hauen beharrak asetzea? Erabile bakoitzaren interesak ere kontrajarriak izan daitezke askotan... beldurra zentzu horretan.
- **Intimo:** horrelako proiektu bat irudikatzen oso gogotsu gendoan, nik parte hartzeko gogo handia neukan, baina ezin nuen rol aktiboa eta lidergoa hartu. Horregatik intimitatetik jarraitu nuen prozesua.
- **Harrotasuna, ilusioa:** Ziortzarentzat pizgarri eta mugari oso garrantzitsua izan zen. Harrotasunez eta ilusioz bizi izan nuen aurkezpena.
- Inportantea izan zen niretzat aurkezpenaren momentu hori. Ordura arte eszeptiko nengoen proiektuarekiko eta antzerkian parte hartzeko gonbitea luzatu izan ez balidate, akaso ez nintzen bertaratu ere egingo. Horri esker ikusi nuen ze giro zegoen, ze jende zegoen, ze alai eta positiboa zen dena... pentsatzen dut beste askok ere ikusiko zuela egun hartan nik ikusi nuen hori.
- Egun hartako anekdota bat ekarri nahi nuke gogora: Alkateak hauxe esan zuen: "hauekin nola ez dugu ba egingo". Dena esanda dago, ezta?
- **Urrun eta interesatuta:** Nik ez dut prozesu hori guztia bizi izan. Baina aurkezpenaren ondoren gertuago sentitzen hasi nintzen eta nire interesa piztu zenuten. Hain gazte ez ginenok proiektua interesarekin begiratzen hasi ginen. Gainera, oinarri sendo bat ikusten zitzaion, ez zen ideia soil bat.

Agintaldi planaren aurkezpena:

Garaile, arduratuta, kezkatuta...

- Mugari bat izan zen, oso garrantzitsua.
- Momentu honetan planoz aldatzen da gaia. Ordura arte gazte mugimenduaren baitan landu zen gaia, baina hortik kanpo ez zen ezagutzen. Eta aurkezpenaren ostean beste plano

batzuetara salto egin zuen gaiak. Eta konturatu nintzen zerbait potentea bazetorrela, landuta zegoela. Herriko hiru eragilek elkarrekin landutakoa zela, horrek duen balioarekin.

- **Garaile:** momentu hori oso inportantea da. Programan sartuta ikusi nuenean sentitu nuen hori. Oso inportantea da udalarentzat proiektu klabea izatea.
- **Hauteskunde aurreko lanketetan,** hiru proiektu izar aukeratu behar ziren eta hortxe zegoen proiektu hau. Momentua oso inportantea izan zen. Eta hori sortu zen beste batzuek egindako lanketaren ondorioz. Momentua oso egokia izan zen eta indarra transmititu zen.
- **Ardura eta kezka:** prozesu osoa bizi dut horrela, nagoen tokiagatik. Hauteskundeak iritsi aurretik Kulturguneko kide gisa hartu nuen parte eta atseginez jaso nuen ideia izan zen, gustura hartu nuen parte. Baina, udalean sartu ondoren proiektu honen defentsarako karga eta ardura izan dut. Hor ere lanketa paralelo bat egon da. Orain, gobernutik, ardura eta kezka hori sentitzen dut: ea lortzen dugun dituzuen espektatibei erantzuna ematea.

Prozesua bera:

Itxaropentsu, interesatuta, baikor, hunkituta, gogotsu, harro, ahoz zabalik, lotsatuta, jeloskor, barne, konfiatuta, barne, triste, zoriontsu, liluratuta, ilusioz...

- **Baikor:** fundamentua ikusten zitzaion prozesuari. Planteamendua zegoen: udala, aholkularitza, talde eragile indartsu bat...
- **Txundituta:** dagoen indarragatik eta planteamenduagatik. Eta baita aurkezpenean eraikina non eraikiko zen aipatu zelako. Ez zegoen atzera bueltarik.
- **Kezkati:** herrian debate handia sortuko zuela pentsatzen nuen Elkargunea eraikitzeke erabaki zen tokiak. Eta hori kezkaz bizi izan nuen.
- **Proiektuaren kontra** ere jende bat altxatu zen, Haurreskolako guraso talde bat. Eraso moduan jaso zuten batzuek, buruan zutelako espazio horretan Haurreskola berria jartzea.
- **Espazioaren aukeraketak,** zelaiguneak, haserreak sortu ditu eta aurrera begira ere arreta jarri beharko da gai honetan.
- **Tristura:** urtarrilean apuntatu nituen agendan larunbat guztiak, baina gaur etorri naiz lehenengoz. Seguru nengoen talde hau gai izango zela planteamendu on bat egiteko, baina ezin izan dut nahi beste parte hartu.
- **Zoriontsu** izate aldera goazen honetan, garrantzitsua da azpimarratzea Elhuyarrek egin duen lana saio hauek dinamizatzen: saioak orekatzen, emozioen balantza hau dena homogeneizatzen joateko.
- **Nik ardura eta kezka** sentitzen dut, badagokidalako egun nagoen tokitik. Hala ere, **liluratuta eta ilusioz** ere sentitzen naiz, komunitate hau sortu izana bera gauza handia delako.

Udazkenean beste mugarri bat markatu dezakegula iruditzen zait. Momentu zailak ere etorriko dira, baina egingo diogu aurre. Eta, zentzu horretan, ekipo honetan konfiantza osoa daukadala aitortuko dizuet.

- *Hemen ez da ezer bukatu, hasi egin gara. Oraindik gauza asko geratzen da erabakitzeke eta sua mantendu behar dugu bizirik, lana dugu. **Kezka** sortu zait azkenengo aste hauetan, proiektu puska hau egikaritzera goazen honetan. Eraikinak eskainiko dizkigun baliabideak ondo kudeatu beharrak, aukera ondo baliatzeak, bertigo hori sortzen dit, baina zentzu positiboan.*
- ***Harro:** eta ez soilik proiektuaz. Harro sentitzen naiz Usurbilgo gazteriaz eta gazteriak dauzkan baloreez. Uste dut gauzak ez direla besterik gabe gertatzen eta inflexio puntu hori zerbaitengatik eman zela. Komunitatean egin den lan honek emaitza emango du. Uste dut gaur egun ez dagoela herri asko hemen dagoen gazteriaren parekorik duenik.*
- *Zenbat harro ikusita, argi dago Arroitxulo izan behar zuela.*



Talde teknikoaren balorazioa:

- *Plazer handia izan da guretzat bide hau zuekin partekatzea. Jende askok hartu duzue parte, akaso ez zarete erabat kontziente zer lortu duzuen, baina adostasun handiak lortu dituzue eta oinarri sendoa baduzue. Oraindik falta dira xehetasunak eta hau dena kudeatzeko antsietate puntu bat sortuko da orain. Baina, egin duzuen lana izugarria izan da eta baita ekarri duzuen predisposizioa eta jarrera. Gai potoloak aboratu dituzue errespetuz, eztabaidak emanaz, logika partekatuetan, DNAn duzue hori eta lortuko duzue aurrerantzean ere eztabaidak elkarrekin eman eta korapiloak askatzea.*



- *Eskerrak ematea, beraz. Plazer handia izan da lehen bileratik. Bilera hartatik harrিতuta atera ginen zein talde eta indar sentitu genuen. Ez dugu beti horrelako taldea topatzen eta lana askoz ere gusturago eta errazago egiten da horrelakoetan. Eta emozioekin ari garen honetan, esatea emozio guztiei egin behar diegula toki prozesuetan. Momentu batzuetan egongo gara baikorrago, harroago. Eta beste batzuetan haserre, kezkatuta, nekatuta. Onartu dezagun hori dena eta lortu dezagun momentu partekatu eta emozio bateratuei heltzea, aurrera egiteko. Eskerrik asko!*

5. Itxiera

Ariketarekin amaitutakoan, eskerrak eman eta prozesuari itxiera eman diogu talde argazkia ateraz. Prozesuan parte hartu duten zenbait taldekide elkarrekin bazkaltzera joan dira Txirikordako jantoki berrira. Eta talde eragileak ikasturteko azken bilera uztailaren 16an egitea adostu du.

